



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A
Lehen Mailako Arretako Farmazia
e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2026ko Abuztua	
AEMPS-EN INFORMAZIO-OHARRAK EMak Tavneos (abakopana) merkaturatzeko baimena kentzea gomendatzen du	1 Jarraitu irakurtzen
ARGITALPEN INTERESGARRIAK • INFAC: Penizilinak eragindako alergia desetiketatzea • SEFAPeK magnesioari buruzko 47. infografia argitaratu du • Bentzodiazepinak pixkanaka kentzeko gida klinikoa • iSGLT-2 eta arGLP-1en terapia konbinatuaren emaitza kardiobaskularrak eta giltzurrunekoak	2 Jarraitu irakurtzen
OSASUN PUBLIKOKO ZUZENDARITZAREN GAIXOTASUNEN, TXERTOEN ETA ZAINZA EPIDEMIOLOGIKOAREN ARLOKO INFORMAZIO-OHARRAK	3 Jarraitu irakurtzen
ALBISTE INTERESGARRIAK • Saxenda®ren merkaturatze-etetea (Liraglutida) • Novomix 50® intsulinaren merkaturatzeari uztea	4 Jarraitu irakurtzen
EUSKADITIK KANPORA DOAZEN ERABILTZAILEENTZAKO PRESKRIPZIOAK: INFORMAZIOA EGUNERATZEA	5 Jarraitu irakurtzen
HILABETEKO BERRITASUNAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN	6 Jarraitu irakurtzen
HORNIDURARIK EZA ETA MEDIKAMENTUEN HORNIDURA BERREZARTZEA	7 Jarraitu irakurtzen

1	AEMPS-EN INFORMAZIO-OHARRAK
EMak Tavneos (abakopana) merkaturatzeko baimena kentzea gomendatzen du: Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (AEMPS) informazio-ohar bat idatzi du, zeinean Tavneos (abakopana) merkaturatzeko baimena kentzea gomendatzen baitu, Medikamentuen Europako Agentziaren (EMA) batzordearen arabera, onura-arrisku erlazioa jada ez delako onuragarria. Informazio-oharrari esteka	

INFAC: Penizilinak eragindako alergia desetiketatzea

[Web orrialdean](#) "Penizilinak eragindako alergia desetiketatzea" izeneko INFAC buletin berria eskuragarri dago.

[Buletin](#) honen helburua da profesionalak jabeaztea penizilinak eragindako alergia ondo etiketatzearen garrantziaz, penizilinarekiko alergia dutela esaten duten pazienteen maneuari buruzko gomendioak berrikustea eta arlo desberdinetako profesionalentzat estrategia erabilgarriak proposatzea, penizilinarekiko alergia faltsuak modu seguruan desetiketatzeke.

SEFAPek magnesioari buruzko 47. infografia argitaratu du : Zer jakin behar duzu magnesioa hartu aurretik?

Lehen Mailako Arretako Farmazialarien Espainiako Sozietateak (SEFAP) infografia berri bat argitaratu du: **Zer jakin behar duzu magnesioa hartu aurretik?** Magnesioa gorputz osoko erreakzio askotan eragiten duen funtsezko minerala da. Dieta osasuntsu batek behar duzun magnesioa ematen dizu; hortaz, ondo bazaude, ez duzu osagarririk behar.

- [PDFaren esteka](#)
- [Aurkezpen interaktiboa](#)
- SEFAPen infografia hau eta beste batzuk [web-orrian](#) ikus daitezke.

Familiako Medikuntzako Amerikar Elkartearen bentzodiazepinak (BZD) pixkanaka kentzeko gida klinikoa:

American Family Physician (AFP) aldizkariak, hamar elkarte zientifikotako ordezkariekin batera, gida kliniko bat idatzi du Bentzodiazepinak helduen tratamenduetatik pixkanaka kentzeko, zainketa aringarriak eta bizitzaren amaiera salbuetsita. Gidan, arrisku larriak minimizatzeko, pazientean zentratutako banakako prozesu mailakatua egitea gomendatzen da, etete bortitza saihesteko. Hauek azpimarratzen dira: etengabeko ebaluazio klinikoak, esku-hartze psikosozialak eta arreta berezia jartzea adinekoen, opioideen erabiltzaileen, arazo psikiatrikoak dituztenen edo haurdunaldian edo edoskitzaroan daudenen kasuetan.

Eskura dagoen ebidentzia mugatua denez, ematen diren gomendio asko adituen adostasunean oinarritzen dira (2026ko uztailaren 113. liburukia, 6. zk.).

[Gidara Esteka](#)**iSGLT-2 eta arGLP-1en terapia konbinatuaren emaitza kardiobaskularrak eta giltzurrunekoak, bereizitako tratamendu bakoitzarekin alderatuta, diabetes mellitus 2 duten pazienteetan.**

2026ko uztailan, *Canadian Medical Association Journal* (CMAJ) aldizkariak ausazko 12 saiakuntza klinikoren (ASK) sareko metaanalisi bat argitaratu zuen; metaanalisiak 2 motako diabetesa duten ia 100.000 paziente hartzen ditu barne. Azterlanak iSGLT-2 eta arGLP-1en terapia konbinatuaren eta monoterapiaren (medikamentu horietako edozeinen monoterapia, edo plazebo bidezkoa) eraginkortasuna eta segurtasuna alderatzen ditu.

2 motako diabetesa duten eta arGLP-1 hartu zuten (iSGLT-2aren erabilera basalarekin edo gabe) 18 urtetik gorako helduen ASKak sartu ziren, bai eta iSGLT-2 hartu zutenenak (hasierako arGLP-1arekin edo gabe) ere. Saiakuntza guztiek arGLP-1 edo iSGLT-2 bidezko monoterapia eta plazeboa alderatu zuten. Saiakuntza bakar batek ere ez zuen zuzenean alderatu iSGLT-2 eta arGLP-1en terapia konbinatua eta plazeboa

Bereizitako iSGLT-2 edo arGLP1 bidezko tratamenduarekin alderatuta, terapia konbinatuak ez zuen nabarmen murriztu gertaera kardiobaskular edo giltzurruneko gertaera kaltegarri larriak izateko arriskua, baina lotura du bihotz-gutxiegitasunagatiko ospitaleko ingresua izateko arrisku txikiagoarekin. Terapia konbinatuak 2 motako diabetes mellitusa duten pazienteengan izan ditzakeen onura potentzialak berresteko, monoterapia eta terapia konbinatua zuzenean alderatzen dituzten SKAk behar dira.

[Artikulura esteka](#)

Osasun Sailaren "Gaixotasunak, txertoak eta zaintza epidemiologikoa" atalak gomendio berriak sartu ditu 2026/2027 aldirako Arnas birus sintzitalaren (ABSren) aurkako immunizazioan. Immunizazioa 2026ko irailaren 14tik 2027ko martxoaren 31ra bitartean egingo da. [20262027 Denboraldia ABS.pdf](#)

Era berean, ohar bat bidali du, VCN20ren xede-populazioaren erakartzea indartzea garrantzitsua dela gogoratzeko. [Neumokokoari buruzko informazio-oharra](#)

Osasun publikoko zuzendaritzak bidalitako beste eguneratze batzuk:

[Txertaketan eta immunizazioen eskuliburu](#)ko kapitulu eta eranskin hauek eguneratu dira:

- 2.3 Hotz-katearen kontrola eta txertoak biltegitratzea
- 4.16 Mpox
- 11.3 Txertoen intzidentzia-orria
- 11.4 Produktu immunizatzaileen termoeгонkortasun-koadroa
- 11.11. Egutegia egokitzea pediatrian
- 11.12. Egutegia egokitzea helduetan

Informazio gehiago nahi izanez gero:

[Profesional sanitarioei zuzendutako txertoei buruzko informazioa - Gaixotasunak, txertoak eta zaintza epidemiologikoa - Osasun Saila - Eusko Jaurlaritzak - Euskadi.eus.](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Saxenda®ren merkaturatze-etetea

Novo Nordisk Pharma S.A.k Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziari (AEMPS) jakinarazi dio **2026ko irailaren 1ean** Saxenda® medikamentuaren aurkezpen hau **merkaturatzeari utziko diola Espainian**:

- SAXENDA® 6 mg/ml, SOLUZIO INJEKTAGARRIA, LUMA AURREKARGATUA, 3 ml-ko 5 luma aurrekargatu

5 lumako aurkezpena jakinarazpen hau izango du Presbiden: "SAXENDA® 6 mg/ml, 5 luma (liraglutida) merkaturatzeari utziko zaio 2026ko irailaren 1ean. Hausnartu beste tratamendu batera aldatzea."

Aldaketa horrek ez du esan nahi Saxenda® merkaturatik kenduko denik, 3 ml-ko (CN 724999.3) 3 luma aurrekargatutako aurkezpena eskuragarri jarraituko du, nahiz eta une honetan hornidurarik gabe egon. Era berean, gogorarazten da Saxenda® ez duela Osasun Sistema Nazionalak finantzatzen eta errezeta bidez ematen dela farmazia-bulegoetan.

Novomix 50® intsulinararen merkaturatzeari uztea ren merkaturatze uztea

[Intsulinen komunikazioa eteteari buruz](#) Medikamentuen eta Osasun produktuen Espainiako Agentziak (AEMPS) aurretik egindako jakinarazpenei dagokienez, informazio hau eguneratzen da.

Novo-Nordisk laborategiak NovoMix® 50 FlexPen® (intulina asparta bifasikoa) intsulinararen merkaturatzearen etena baieztatu du **2026ko abuztuaren 14an**. Data horretatik aurrera, NovoMix® 50 produktuaren beste aurkezpenik ez da eskuragarri egongo merkatuan.

Merkaturatzeari utzi zaion intsulinararen aurkezpen horren alternatiba terapeutiko gisa, aukera hauek planteatzen dira:

- Intulina-analogoen nahasketa
 - Humalog Mix® 50 Kwikpen® 100 U/ml. Kode nazionala: 661147
 - Printzipio aktiboak: Lispro intulina 50 U/ml, Lispro Protamina intulina 50 U/ml
- Intulina basal-boloaren erregimena:
 - Bitarteko ekintzako NPH giza intulina (NPH 100U/ml humulina) + eragin azkarreko intsulinararen antzeko boloa (asparta, lispro, glulisina, edo fast aspart).
 - Eragin luzeko intulina basalaren analogoa (degludek, U100 glargina intulina edo U100 glarginaren edo U300 glarginaren bioantzekoak) + eragin azkarreko intsulinararen antzeko boloa (asparta, lispro, glulisina, edo fast aspart).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

5

EUSKADITIK KANPORA DOAZEN ERABILTZAILEENTZAKO PRESKRIPZIOAK: INFORMAZIOA EGUNERATZEA

[Farmahitzak aldizkariaren aurreko zenbakian](#), Osakidetzak Presbide - eRezetan Euskaditik kanpora doazen pazienteei tratamenduen jarraipena bermatzeko nola jokatu behar den azaltzeko emandako jarraibideak gogorarazi ziren.

Orain informazioa eguneratzen dugu **elkarreragingarritasunik gabeko herrialde atzerritarretara hilabete baino gehiagoko bidaia egiten denean** **bisa elektronikoarekin inprimatutako errezeten zuzenketari dagokionez**, gehienez ere 3 hilabeteko tratamendurako. Kasu horretan, profesional medikoak preskripzio-data zuzendu ahal izango du, eta, errezeta arruntetan bezala, ondoan "Zuzenketak balio du" idatzi beharko du, errezeta sinatu eta zigilatu. Zuzenketa errezeta hasieran agindu zuenaz bestelako preskriptore batek egiten badu, preskriptore berri horrek, sinaduraz gain, bere datuak ere idatzi beharko ditu (izena, abizenak eta elkargokide-zenbakia), zuzenketa nork egin zuen identifikatu ahal izateko.

Horrela, zuzenketa jada ez dagokio Ikuskaritza Medikoari.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Hona hemen 2026ko Abuztuko berritasunak:

2026ko Abuztua		
	Klobetasola	Eleus® 0,5 mg/ml, 0,2 ml-ko dosi bakarreko 30 ontzi emultsioan. Indikazio hauetarako finantzatuta: - helduen begi-lausoan kirurgiarekin lotutako hanturaren tratamendua Fitxa teknikorako esteka
	Salbutamola	Bentoaldoa® 100 mcg/dosi, presiozko ontzian inhalatzeko suspentsioa(dosiaren adierazlearekin). Indikazio hauetarako finantzatuta: - bronkoespasmaren tratamendu sintomatikoa asma bronkialean eta arnasbideen buxada itzulgarriarekin lotutako beste prozesu batzuetan. - ariketa fisikoak eragindako bronkoespasmoprofilaxia edo estimulu alergeniko ezagun eta saihestezin baten eraginean jarri aurretik. Fitxa teknikorako esteka
	Piroxikama	Feldene® Flas 20 mg, ahotiko liofilizatuak. Bere merkaturatzea bertan behera uzten da. Fitxa teknikorako esteka
	Zeftriaxona	Zeftriaxona® EFG 250 mg, 500 mg eta 1 G (hautsa + disoluzioa). Bisaren beharra kendu da. Fitxa teknikorako esteka

 Indikazioa, finantzaketa edo preskripziorako eta emateko baldintzak zabaltzea

 Merkaturatutako printzipio aktibo berria (edo lehendik dagoen bat administratzeko bide berria)

 Finantzaketa etetea edo merkaturatzea etetea

2020ko urtarilaz geroztik izandako berritasunak jasotzen dituen [dokumenturako](#) esteka.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIA garrantzitsuenak:


- **Farmaproina® 1.200.000 UI**, bial 1 + anpoila 1 (benzilpenizilina prokaina)
- **Carnicor® 10 bial** edangarri, ahotik hartzeko disoluzioa 10 ml (karnitina)
- **Arteoptic® % 2**, kolirioa 3 ml (karteolola)
- **Ekistol® y Cilostazol Aristo EFG 50 mg**, 56 konprimatu (zilostazola)
- **Somazina® 1 g**, 4 ml-ko 10 anpoila (zitikolina)
- **Hidroquinidina Serecor 300 mg**, 60 kapsula lib. Luzea (hidrokinidina hidrokloruroa)
- **Imbarix® 10 mg/1,5 mg**, 30 konprimatu lib. aldatua (Indapamida/ramiprilo)
- **Vimpat® eta Laprysta EFG 10 mg/ml**, jarabea 200 ml (lacosamida)
- **Latanoprost/timolol Stada 50 mcg/ml+5 mg/ml**, kolirioa disoluzioan 2,5 ml (latanoprost/timolol)
- **Progevera® 10 mg**, 30 konprimatu (medroxioprogesterona azetatoa)

- **Methofill® Pen** 7,5 mg/0,15 ml, aurrez kargatutako 4 luma (metotrexatoa)
- **Methofill® Pen** 17,5 mg, aurrez kargatutako 4 luma, 0,35 ml-ko soluzio injektagarria (metotrexatoa)
- **Efferalgan®** 500 mg, 24 kapsula (parasetamola)
- **Serra Procaina®** 10 mg/ml, 5 eta 10 ml-ko anpoilak (prokaina hidrokloruroa)
- **Bijuva®** 1/100 mg, 28 eta 84 kapsula (progesterona/estradiola)
- **Xarelto®** 1 mg/ml pikortatua ahotik esekitzeko, 2,625 g eta 5,25 g (erribaroxabana)
- **Reig Jofre sulfadiazina®** 500 mg, 20 konprimatu (sulfadiazina)
- **Soltrim®** 160 mg/800 mg, 5 bial hauts + 5 anpoila disolbatzaile (trimetoprim/sulfametoxazola)

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- **Cipla fluticasona** 125 mcg/inhalazio esekia, presiopeko ontzia 120 pultsazio (flutikasona propionatoa)
- **Teva levotiroxina EFG** 50 mcg 50, 84 eta 100 konprimatu (lebotiroxina)
- **Eutirox®** 50 mcg, 100 konprimatu (lebotiroxina)
- **Aristo levotiroxina EFG** 50 mcg, 100 konprimatu (lebotiroxina)
- **Diproderma®** % 0,05, pomada 30 g (betametasona dipropionatoa)
- **Periactin®** 4 mg, 30 konprimatu (ziproheptadina)
- **Metobject® Pen** 17,5 mg, 0,35 ml aurrez kargatutako luma 1 (metotrexatoa)
- **Methofill® Pen** 20 mg, aurrez kargatutako 4 luma 0,4 ml (eskuzkoa) (metotrexatoa)
- **Effentora®** 100 mcg, 28 aho-konprimatu (fentaniloa)
- **Effentora®** 200 mcg, aho-pilulak, 4 eta 28 pilula (fentaniloa)
- **Fentaniloa Aristo EFG** 100, 200 eta 600 mcg, ahoko 28 konprimatu (fentaniloa)
- **Conferoport®** 0,5 mg, askapen luzeko 30 kapsula gogor (takrolimus)
- **Jorveza®** 1 mg, ahoan sakabnantzeko 60 konprimatu (budesonida)
- **Imigran®** 20 mg sudurra lainoztatzeko disoluzioa, dosi bakarreko 2 ontzi (sumatriptan)
- **Obgemsa®** 75 mg, 30 konprimatu estali (vibegron)

PRESBIDEn “Hornidura-gabezia” botoia eskuragarri dago, “Preskripzioen kontsulta” pantailaren beheko aldean, hornidura-gabeziei buruzko informazio erabilgarria erakusten duena.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- Presbiden: [Hornidura-gabezien taula](#)
- CIMA-AEMPSen: [AEMPSen medikamentuen hornidura arazoak](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia

Farmazialariak: Arantza Hernández, Javier Martínez, Inés San José eta María Prieto.

Iradokizunak edo iruzkinak egiteko, bidali posta elektronikoa helbide honetara:

ARABAKO ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus



Argitalpen honen edukia Osakidetzako Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da FarmaHitzak buletinak Osakidetzaren intranetean daude eskuragarri hurrengo [estekaren](#) bidez